

IN MEMORIAM: JULIO CARO BAROJA

Juan Garmendia Larrañaga

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos
Año 43. Tomo XL. N.^o 2 (1995), p. 265-268
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Aldez edo moldez, Aldizkari urtetsu honen argitalpenarekin bat egiten dugunok albiste triste batek nahigabezko egoera ezin handiagoan murgilarazi gintuen, joan den abuztuaren 18ko goizaldean. Egun horretan Julio Caro Baroja jauna hil zen, bigarren aldia deitu dugunaren hasieratik (1983) gure zuzendari maitea izan dena, lagun eta maisu miretsia, eta Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkari honen orrietara bere entzute ona ekarri zuena.

Denon sentimena bilduz, esan dezakegu On Julio luxuzko zuzendaria izan dela guretzat. RIEVeko bigarren ibilera honen lehen aleari eginiko hitzaurrean hemen ematea egoki derizkiogun ondoko kontsiderazioak egiten zituen:

“RIEV sekula ez da dibulgazio aldizkaria izan ez eta ‘herrirakoa’ ere. Zeren eta gure herrialdean baziren beste batzuk (eta oso onak, haietariko zenbait), premia hori betetzen zutenak, dibulgazio eta herrian zabaltzeko premia hori badelarik beti ere”.

“Hizkuntzari dagokionez, hona nire irizpidea. RIEV ‘nazioarteko’ izan zen hizkuntzaren ikus-puntutik. Jakina, euskal hizkuntzak, ‘euskarra’, lehen eta agian gehienezko arreta erakartzen zuen. Garbi da, halaber, hartan antzinako euskal testu asko argitaratu zirela, bai eta lankide kopuru nabarmenak bertako hizkuntzan idatzi zueta. Beste batzuek, alabaina, gazteleraaz idatzi zuten; eta zenbaitek, frantsesek, baita alemanez ere. (...). Goi mailako agerkari batek ildo horretatik jo behar du, nahiz eta, aitorrtu beharra dago, eleanitzasuna oso erosoa ez den”.

“Bestalde, ‘Eusko Ikaskuntzak’ etorkizunean ‘Eusko Ikaskuntzen’ kontzeptua ere berrikusi beharko du (...), 1983n hemen kaleratzen hasten den aldizkari batek Ekonomia, Soziologia, Psikiatria, etab., bezalako disziplinen inguruko artikuluak biltzea, gure ustetan Hizkuntzalaritza, Antropologia eta Historiurreko gai zaharrak lantzen jarraitzea bezain premiazkoa da”.

Gure iritziz, aldizkari honek, bai eta azken finean Eusko Ikaskuntzak ere, gure mugen barnean eta ezinbestean oker egindakoenean artean, Zuzendari ospetsuak markaturiko orientabideei fi-dela izaten jarraitu eta haiei erantzuten sainatu da.

On Julioaren maisutzaz eta adiskidetasunaz gozatzeko zona izan dugunok Itzeako jakintsuaren nortasuna aberasten zuten giza kalitateek ezagutzen ditugu; obra gaitzaren egilea da, gure mugen barruan eta kanpoan, denek aitorrtu eta errespetaturiko nagusitasunez burutua.

Topikotzat har badaiteke ere, esan dezagun Caro Baroja kulturaren alorrean, berau ikuspegi zabal eta oparo batetik begiratuta, ordezkaezineko pertsonaia izan genuen, disziplina jakin batean itxi eta sailkatzeko egin daitezkeen saio guztietatik saihesten dena. Hemen soilki gizon begiralearen eta pentsatzaile zorrotzaren izaera nabarmenduko dugu.

Atsekabeen idatziriko lerro hauetan, eta bizi zelarik gure Zuzendariak hartu zituen ezagutza ugari eta bidezkoez abstrakzio eginik, ez ditugu ahaztuko Eusko Ikaskuntzak haren lan estimagai-zaren esker-erakutsi gisa eskaini zizkion RIEVeko bi aleak.

Julio Caro Baroja jaunak, eta haren ereduzko lan ongi eginak, bizirik iraungo dute Aldizkari hau egiten dugun guztien oroitzapenean. Haren familiari, anaiaarteko maitasun frogatuzko jokabi-dea erakutsi duenari, gure doluminik bizienak helarazi nahi dizkiogu.

A todos los que de una u otra manera nos encontramos identificados con la publicación de esta añosa Revista, una triste nueva acaecida en los albores del pasado día 18 de agosto nos sumió en un estado anímico de la mayor tribulación. Ese día, el 18 de agosto, fallecía D. Julio Caro Baroja, quien, desde los comienzos de lo que denominamos la segunda etapa (1983) ha sido nuestro querido director, amigo y admirado maestro, que ha prestigiado las páginas de esta *Revista Internacional de los Estudios Vascos*.

Haciéndonos eco del sentir unánime, podemos afirmar que en D. Julio hemos contado con un Director de lujo. A su prólogo al primer número de esta segunda andadura de la R.I.E.V. corresponden las consideraciones siguientes, que estimamos pertinente transcribir:

“Lo que no fue nunca la ‘R.I.E.V.’ fue una revista de divulgación o ‘popular’. Porque en el país ya había otras (y algunas puede decirse que eran muy buenas), que cubrían esta necesidad, siempre existente, de divulgar y popularizar”.

“Con relación al idioma juzgo lo que sigue, La ‘R.I.E.V.’ fue ‘internacional’ desde el punto de vista lingüístico. Claro es que el idioma, el vasco, el ‘eusker’, era objeto de primera y acaso máxima atención. Claro es, también, que en ella se publicaron muchos textos vascos antiguos y que un número sensible de colaboradores escribieron en la lengua vernácula. Pero otros lo hicieron en lengua castellana; otros en francés y aun en alemán (...). Una publicación de alto nivel tiene que mantener esta línea, aunque hay que reconocer que el plurilingüismo no sea del todo cómodo”.

“Por otra parte, ‘Eusko Ikaskuntza’ tendrá que hacer en lo futuro una revisión del concepto de ‘Estudios Vascos’ (...). Que en una publicación que empieza a salir aquí, en 1983, haya artículos sobre disciplinas tales como la Economía, la Sociología, la Psiquiatría, etc., parece tan necesario como que se sigan cultivando los viejos temas de Lingüística, Antropología y Prehistoria”.

Creemos que dentro de nuestras limitaciones e inevitables desaciertos, esta Revista, a la poste *Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos*, ha procurado responder y ser fiel a las orientaciones marcadas por el que ha sido nuestro ilustre Director.

Quienes hemos tenido la fortuna de disfrutar del magisterio y amistad de D. Julio somos conscientes de las cualidades humanas que enriquecían la personalidad de este sabio de Itzea, autor de una ingente obra, tratada con autoridad reconocida y respetada por todos, dentro y lejos de nuestras fronteras.

Aunque pueda parecer que suena a tópico afirmaremos que en Caro Baroja tuvimos una figura irreemplazable en la inquietud del predio cultural, contemplada desde una vasta y ubérrima perspectiva, que escapa a todo intento de encasillamiento en disciplina determinada, aquí nos limitaremos únicamente a resaltar su condición de hombre observador y pensador perspicaz.

En estas líneas escritas dentro de la aflicción que vivimos, y abstracción hecha de otros numerosos y justos reconocimientos que en vida recibió nuestro Director, no olvidaremos los dos volúmenes de la R.I.E.V. que Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos le dedicó en testimonio de agradecimiento a su inestimable labor.

D. Julio Caro Baroja, y su ejemplo de bien hacer, permanecerán vivos en el recuerdo de todos los que hacemos esta Revista. A su familia, de conducta de probado cariño y amor fraternal, le expresamos nuestra más sentida y sincera condolencia.